Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

76E/2026 EBAZPENA, urriaren 28koa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, “2026an hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak” izeneko deialdiaren lehen ordainketa onesten duena.

ERREFERENTZIA:	**Espedientearen zenbakia: 0011-1406-2026-000000**
KUDEAKETA UNITATEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua. Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskara Sustatzeko Atala Telefonoa: 848 423224 Helbidea: Paulino Caballero kalea, 13, 31002 Iruña Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es
Deialdia:	Hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzen deialdia

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko Kontseilariak 2026ko martxoaren 31n emandako 30E/2026 Foru Aginduaren bidez onetsi zen “2026an hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak” izeneko deialdia.

Ondoren, Euskarabidearen – Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak, 2026ko irailaren 24an emandako 66E/2026 ebazpenaren bidez, dirulaguntzen deialdiaren ebazpena esleitu zuen.

Deialdia arautzen duen martxoaren 31ko 30E/2026 Foru Aginduaren oinarrietan ezartzen denez, dirulaguntza bi zatitan ordaintzen ahalko da. Gainera, irailaren 24ko 66E/2026 ebazpenean, ezartzen da lehenengo ordainketa justifikatzeko eta dokumentazioa aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa dela, ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Lehendabiziko justifikazio hau borondatezkoa da, eta, gehienez ere, dirulaguntzaren % 50 ordainduko da.

Zerbitzu kudeatzaileak egiaztatu du diruz lagundutako jarduerak bete direla, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla, bai eta aurkeztutako agiriak baliagarriak direla ere.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena eman du, behar den dokumentazioa eta gastuen frogagiriak egoki aurkeztu dituzten 3 entitateei lehen ordainketa egiteko.

Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan, lehen ordainketari dagozkion zenbatekoak ordaintzea:

CSV:**7574F5EB679BA3F2**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-10-28 14:53:40

Esp. zenbakia	IFK	Izena	Aurrekontu Partida	Zenbatekoa
0011-1406-2026-000008	G31736077	ASOCIACION CULTURAL MAILOPE	B30002/B3200/4709/334100	21 598,88 €
0011-1406-2026-000009	G31267008	ASOCIACION CULTURAL XORROXIN ELKARTEA	B30002/B3200/4709/334100	28 971,21 €
0011-1406-2026-000026	G71367825	EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA	B30002/B3200/4709/334100	108 990,00 €

2. Ebazpen hau jakinaraztea goiko zerrendako eskatzaile bakoitzari.

3. Mintza Komunikazio Elkarteari ez zaio inolako laguntzarik esleitu, lehen justifikazio ekonomiko honetan, 2025eko urriaren 1etik 2026ko apirilaren 30era arte egindako gastuek ez dutelako defizitik gastuen balantzean, eta, beraz, gastuen bigarren justifikazioan baloratuko da.

4. Ebazpen hau igortzea ondorengoei: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu hartzailetza Delegatura, aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideko Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administratiboaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

5. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2026ko urriaren 28an.

EUSKARABIDEA- EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga

CSV:**7574F5EB679BA3F2**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-10-28 14:53:40